

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2010eko MARTXOAREN 18an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko otsailaren 18an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Karlos Irazu Muñoa  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - 2010eko otsailaren 18an egindako ohiko bilkura.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. 2010 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
- 4. 2010 ekitaldirako Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala badagokio.**
- 5. 2010 ekitaldirako udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea.**
- 6. Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratuaren luzapenaren onespena, hala bada.**
- 7. Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitateko urbanizazio eta bertan eraikitako kultur zentru balioanitzeko lanak egoki bermatzeko ezarritako bermea itzultzeko eskaeraren onespena, Construcciones Trati S.L. baltzuak eskatua, hala bada.**
- 8. Zinegotzi berriaren kargu hartzea, hala bada.**
- 9. Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2010 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.**
- 10. 2010 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 11. 2009-2010 Auzolan programa dela eta Tolosalde Garatzeko egin beharreko ekarpena burutzea, hala bada.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

12. DINA-7 Kultur Elkarteak eginiko hainbat eskaeren azterketa, hala bada.
13. Fakturak eta ordainketak.
14. Beste batzuk.
15. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2010 urteko otsailaren 18ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

04/2010 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 19koa, 9717-GJZ ibilgailuaren jabeari, hau da, M.L.P.P. andreari duen ibilgailuen udal zergan, salbuespena kentzea, (abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak ibilgailuen gaineko udal zergan aldaketa batzuk onestu dituelako) ebazten duena.

05/2010 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 19koa, SS-6607-BJ ibilgailuaren jabeari, hau da, J.G.A.I jaunari duen ibilgailuen udal zergan, salbuespena kentzea, (abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak ibilgailuen gaineko udal zergan aldaketa batzuk onestu dituelako) ebazten duena.

06/2010 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 1koa, VII. Aiztondo Klasikako batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 799,98 eurotako ekarpena burutu dadin, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **2010 URTERAKO UDAL ZERGA/TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2010 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 20010eko urtarrilaren 20tik otsailaren 12rarte epea ireki zela, 5 eskaera egon direlarik

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2010 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

- Jose Angel Zumeta: SS-3090-L ibilgailu historikoa.
- Igor Belaunzaran Goyenechea: IBI -famili ugaria.
- Endika Azpirotz Muxika: IBI -famili ugaria.
- Andres Aristi Jalon: IBI -Eguzki plakak.
- Iban Ortiz Digon: IBI -Eguzki plakak.

### **LAUGARREN PUNTUA**

### **2010 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate jaunak 2010 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, zeinaren zenbateko osoa 14.856,23 eurotakoa den.

Bertaratuek, aipatu errolda fiskala azterturik, ahobatez,


### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2010 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendeaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onarturiko 2010 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2009ko apirilaren 1etik ekainaren 1era bitartekoa izatea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **2010 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2010 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2010eko martxoaren 12an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengo,


### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2010 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 664.450,00 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

#### GASTUAK

I. Kap. PERTSONAL-GASTUAK	89.250,00
II. Kap. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	109.500,00
III. Kap. FINANTZA-GASTUAK	3.457,48
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	68.265,60
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK	361.392,79
VII. Kap KAPITAL TRASFERENTZIAK	7.000,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZARIOAK	25.584,13
<b>GUZTIRA GASTUAK</b>	<b>664.450,00</b>

#### SARRERAK



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

I. Kap. ZUZENEKO ZERGAK	43.000,00
II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	2.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	40.900,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	212.300,00
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	4.000,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	242.250,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	120.000,00
<b>GUZTIRA SARRERAK</b>	<b>664.450,00</b>

BIGARRENA.- 2010eko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzak aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **HERRI OSTATU JATETXEAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA KONTRATUAREN LUZAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2007ko uztailaren 5ean ospatutako Udalbatzarrean Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro jaunari eman zitzaiola, baldintza ekonomiko administratibo pleguak aurreikusitako baldintzapean.

Ikusirik aipaturiko erabakiaren arabera Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu administratiboa sinatu zela, Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro eta Larraulgo Udalaren artean, 2007ko uztailaren 20an. Kontratuaren HIRUGARRENGO KLAUSULAN datorren modura, "emakidaren epea, baldintza administratibo partikularren pleguak IV klausulan dion bezala, 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu ondoren bi aldean



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

adostasunarekin beste urte betean luzatu daiteke kontratua, eta honen amaieran beste hiru urte eta erdirako gehienez”.

Ikusirik 2008ko martarrilaren 27an egindako Udalbatzarrean onestu zela Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro eta Larraulgo Udalaren artean, urtebetez luzatzea, honen amaieran beste hiru urte eta erdirako gehienez” luzatu daitekeelarik bi alderdien adostasunekin.

Ikusirik 2009ko martxoaren 5ean egindako Udalbatzarrean onestu zela Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro eta Larraulgo Udalarena artean, urtebetez luzatzea, honen amaieran beste bi urte eta erdirako gehienez” luzatu daitekeelarik bi alderdien adostasunekin.

Ikusirik aipaturiko urtea igaro dela, bi alderdiak ados daudelarik bi urte eta erdiz kontratua luzatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua bi urte eta erdiz luzatzea. Baldintza administratibo partikularren pleguen IV Klausula jarraituz.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tomas Prieto Gonzalez de San Pedro jaunari ematea.


### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

**LARRAULGO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 2.1. EXEKUZIO UNITATEKO URBANIZAZIO ETA BERTAN ERAIKITAKO KULTUR ZENTRU BALIOANITZEKO LANAK EGOKI BERMATZEKO EZARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKAERAREN ONESPENA, CONSTRUCCIONES TRATI S.L. BALTZUAK ESKATUA, HALA BADA**

Ikusirik Construcciones Trati S.L. baltzuak, Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitateko eraikitako Kultur zentru balioanitzeko lanak egoki bermatzeko jarritako 18.549,16 eurotako abalaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik, ziurtatu dela Construcciones Trati S.L. baltzuak egoki egin dituela Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitatean kokaturik dagoen Kultur Zentru balioanitzeko lanak, dagokion berme epea igaro delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Construcciones Trati, S.L. baltzuak eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 2.1. exekuzio unitatean eraikitako Kutur Zentru Balionanitzeko lanak egoki bermatzeko jarri zuen abala, hau da, 18.549,16 eurotako bueltatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **ZINEGOTZI BERRIAREN KARGU HARTZEA, HALA BADA**

Puntu hau, azken puntu bezala tratatuko da Udalbatza honetan, bertaratuek aho batez onesten dutelarik.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNEARI 2010 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusirik 2010 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duela “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalarik dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 2.890,00 eurotako, eta bertan % 60-aren ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik aurten “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmoaren” aurrekontuan Beterriko telebista (internet) onestu dutela Larraulgo Udaletxearek ezer jakinarazi gabe, honen kostua 150,00 euro direlarik, kontzeptu honekin Larraulgo Udala ez dagoelarik ados aurrez ez zaiolako ezer jakinarazi.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DUTE


LEHENA.- “Beterri-Aiztondo gerora bidean” 2010 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua onartzea Beterriko telebista (internet) ezik, 2.740,00 eurotako kopuruan eta % 60-aren ordainketa burutzea, hau da 1.644,00 euro.

BIGARRENA.- 2010ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

#### **2010 URTERAKO TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2010 urterako



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosaldea Garatzen egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.095 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen, 2010urteko lehen ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

### **2009-2010 AUZOLAN PROGRAMA DELA ETA TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Bertaratuek aho batez onesten dute puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto aztertu arte.


### **HAMABIGARREN PUNTUA**

### **DINA-7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO HAINBAT ESKAEREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik DINA-7 Kultur elkarteak eginiko hiru eskaera, ondorengoak direlarik:

- 1.-1900dik 1970 arteko argazki zaharren bildumako kopiak, Ekomuseoaren egitasmo horren barruan beharrezkoa ikusten baititugu.
- 2.-Larraulgo Ekomuseoaren egitasmoaren barne, bolatoki bat dagoela, eta idatzi honekin bolatokia egiteko eskaera luzatzen diola. Bolatokia Udaletxearen eskubiko hormaren kontra joango litzateke, hau da, Museoara jaisteko dagoen bide eta Udaletxearen eraikinaren horma tartean.
- 3.-Museoaren berrantolatze lanak direla eta, ondorengo eskaera luzatu nahi dio Larraulgo Udalari:

- Museoaren sarrerako argia, kaleko farolekin konektatzea.
- Museoaren barruko tolaarearen azpiko argia jartzea.
- Zerraila aldatzea.
- Pintaketa lanak egitea.
- Panel informatiboa jartzea, Museoara doan bidearen inguruan.
- Alarma jartzea.
- Entxufeak jartzea, orain artean egon den puzzlearen inguruan.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA-7 Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestea, hau da, 1900dik 1970 arteko argazki zaharren bildumako kopia ematea.

BIGARRENA: DINA-7 Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestea, hau da, Museora jaisteko dagoen bide eta Udaletxearen eraikinaren horma tartean, Larraulgo Udalak, bolatoki bat egingo duela onestea.


HIRUGARRENA: DINA-7 Kultur Elkarteak eginiko hirugarren eskaera, momentuz mahai gainean uztea gaia hobeto aztertu arte.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri DINA-7 Kultur Elkarteari ematea.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	98,40
IBERDROLA	171,30
IBERDROLA	159,37
IBERDROLA	16,65
IBERDROLA	18,63
IBERDROLA	160,53
IBERDROLA	50,16
IBERDROLA	158,72
EUSKALTEL	206,79
EUSKALTEL	238,83
REPSOLGAS	275,18
TELEFONICA	17,42
TELEFONICA	68,04
TELEFONICA	87,40
TELEFONICA	20,19
GRAFICAS SORTU	112,53
LKS	1.392,00
UROLA	561,71
SASMAK	116,46
DIONISIO ORMAZABAL	5,68
EBA ERKIZIA	423,19
MEGA	58,77
BERRI LANTEGIA	129,93
BERRI LANTEGIA	1.513,00
JOXAN ALTUNA	11,60



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	8.532,80
JOSE M <sup>a</sup> GAZTAÑAGA	75,63
JOXAN ALTUNA	113,44
FERRETERIA BARBE	57,72

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.852,07** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **HAMALAU GARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **14.1. HERRIKO GAZTEEI KULTUR ETXEKO LOKAL BAT UZTEKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Herriko gazteek eginiko eskaera, non eurak biltzeko lokal bat eskatzen duten, gaur egun ez dutelako lekurik euren artean biltzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak baduela Kultur etxean lokal bat erabiltzen ez duena, proposa herriko gazteak erabiltzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak, gazteei lokala uzteko arau batzuk finkatu behar dituela, ondorengo proposamena egiten delarik:

*“Udalak, lokala uzteko proposamena:*

*Udalak gazteei lokala utziko die, baina hauek, herri mailan kultur ekintzetan parte hartuko dutela konpromisoa hartzen badute.*

*Lokala: Kultur etxeko beheko solairuko gela izango da.*

*Ordutegia:*

*Astelehena: 18:30-21:00*

*Asteartea: 17:00-21:00*

*Asteazkena: 18:30-21:00*

*Osteguna: 19:00-21:00*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Giltzaren arduradunak: Gazteak proposatuta oraingoz “Iñigo, Peio eta Aneli”*

*Adina: 12urtetik 25 urtera*

*Garbiketa: Lokala txukun mantendu eta komunak egunero garbitu*

*Taldeko arduradunak: Printzipioz “Aneli eta Peio”*

*Arauk:*

- *Lokala irekitzez arduratzen denak bertan egon behar du.*
- *Lokala irekita eduki behar dute ordutegi honetan.*
- *Inori ezin zaio ezetzik esan bertan egoteko.*
- *Beste geletan ezin da ibili.*
- *Surik ezin da egin (erre, kandelak etb.)*
- *Ezin da alkoholik ez drogarik kontsumitu.*
- *Ez da iskanbilarik sortuko, kultur etxean dagoen jende guztia errespetatu behar da.*
- *Udalak noizbehinka bilerak egiteko eskubidea izango du, gazteekin nahiz gurasoekin.*
- *Gela honen erabilpena aldatzeko eskubidea du Udalak, beste ekintza baterako gela beharko balu.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herriko gazteei, Larraulgo Kultur etxeko beheko solairuko gelaren erabilpena uztea, ondoren zehazten diren arauak bete beharko dituztelarik:

*“Udalak gazteei lokala utziko die, baina hauek, herri mailan kultur ekintzetan parte hartuko dutela konpromisoa hartzen badute.*

*Lokala: Kultur etxeko beheko solairuko gela izango da.*


*Ordutegia:*

*Astlehena: 18:30-21:00*

*Asteartea: 17:00-21:00*

*Asteazkena: 18:30-21:00*

*Osteguna: 19:00-21:00*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Giltzaren arduradunak: Gazteak proposatuta oraingoz “Iñigo, Peio eta Aneli”*

*Adina: 12urtetik 25 urtera*

*Garbiketa: Lokala txukun mantendu eta komunak egunero garbitu*

*Taldeko arduradunak: Printzipioz “ Aneli eta Peio”*

*Arauk:*

- *Lokala irekitzez arduratzen denak bertan egon behar du.*
- *Lokala irekita eduki behar dute ordutegi honetan.*
- *Inori ezin zaio ezetzik esan bertan egoteko.*
- *Beste geletan ezin da ibili.*
- *Surik ezin da egin (erre, kandelak etb.)*
- *Ezin da alkoholik ez drogarik kontsumitu.*
- *Ez da iskanbilarik sortuko, kultur etxean dagoen jende guztia errespetatu behar da.*
- *Udalak noizbehinka bilerak egiteko eskubidea izango du, gazteekin nahiz gurasoekin.*
- *Gela honen erabilpena aldatzeko eskubidea du Udalak, beste ekintza baterako gela beharko balu.*

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri herriko gazteei ematea.


### **HAMABOSTGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo mozioa aurkezten da:

#### **“IGELDO UDALERRI**

*Gipuzkoako ezaugarrietako bat, biztanleria eta honek duen espazio banaketari dagokionez, orekarena da. Hiriak, herri handi eta ertainak eta herri txikiak aurki daitezke Gipuzkoako lurraldean. Batzuk industrialak eta besteak nekazal eremukoak, herri arrantzaleak,... Denek osatzen eta aberasten dute Gipuzkoako puzzlea. Gipuzkoako herrialdea 88 udalerriz osaturik dago eta horietatik gehienak, 33 udalerrri, 1000 biztanle baino gutxiagokoak dira. Herri gehiago daude Gipuzkoan ordea, udalerrri izan eta 88 horiek bezala, bere txikitasunetik etorkizunerako bidea bere kabuz ibili nahi dutenak.*

*Biztanle kopurua eta lurralde eremu desberdinak izanik ere, denek dute bere buruaren jabe izateko eta beren etorkizuna lantzeko eskubidea.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Duela 15 urte, igeldotarrek ere udalerrri izateko beren borondatea azaleratu zuten eta horretarako prozesua martxan jarri zuten.*

*Bidean argi geratu da aplikatu behar zaien legea eta erabakia hartu behar duen instituzioa zeintzuk diren.*

*Datorren hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Igeldo udalerrri izateko aukerari baiezkua edo ezezkoa emateko erabakia hartuko du.*

*Horren aurrean:*

- Herri txikiak bizirik irauteko duten eskubidearen alde egiten dugu.*
- Igeldotarren gehiengoak adierazitako borondatearekin bat egiten dugu.*
- Borondate horri bide ematearen aldekoak gara.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA:” Igeldo Udalerrri” mozioa bere osotasunean onestea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **ZINEGOTZI BERRIAREN KARGU HARTZEA, HALA BADA**

Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaile andreak adierazi du Gotzon Jauregui Sarasola jaunak Alkizako Udaleko zinegotzi kargua hartzeko betebeharrak guztiak burutu direla eta Junta Elektoral Zentralak bidali duen kredentziala zuzena dela.

Alkate jaunak gonbidatu du bateraezintasun kausarik balu ekintza honetan aldarrikatzera, Gotzon Jauregui Sarasola jaunak ez dituela adierazi duelarik.

Apirilaren 5eko 707/1989 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea beharrezkoa denez (Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8 artikularekin erlasionaturik), Gotzon Jauregui Sarasola jaunak zin egin du bere karguari dagozkion obligazioak zintzo beteko dituela, Erregeari leialtasuna gordez eta Konstituzioa, Estatuko arau nagusi gisa bete eta betearaziko duela, kasu guztietan.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA